

LEHENENGO GAIA: ESTATU MODERNOA

1. ESTATU MODERNOAREN SORRERA ETA GARAPENA

Gaur egun dagoen Estatu eredua. Boterea bere baitan kontzentratzen duen eta beraz boterearen monopolioa duen Estatuaz ari garela. Formalki gaur egun ez dago potentziarik besteen frontierak igaro nahi dituenen. XV eta XVIII mendeen artean agertzen da Estatu modernoaren ematen den bilakaera historiko batean. Lehenbiziko estatuak monarkia absolutuaren forma politikoa hartzen dute, Estatu absolutista hori Estatu liberal bihurtuko da eta XX. mendean Estatu sozial bihurtuko da. ZERGATIK? Erdi Aroan feudalismoan, fenomeno politiko bat ematen da **POLIARKIA** (botere iturri desberdin asko daude eta inor ez du botere politiko eta militarra monopolizatzen). Mota guztietako nobleak (markesak, kondeak, dukeak...), monarkia ahulak. Erdi Aroaren arazoa, oso gatazkatsua, nola ez zuen inor boterea monopolizatzen eta ondorioz Erregeak boterea bereganatzen hasten dira. Sujeto sozial berri bat agertzen hasten da (Burgesia) eta monarkiek baliatuko dira klase sozial horretaz, burgesia eta nobleziaren arteko talka eragiten eta boterea bereganatzen nola monarkia bakarrik gai dela bakea eta segurtasuna bermatu ahal duena ideia saltzen, botere guztia lortu arte. Erregeek lortzen dute lehen botere **subiranoa** (guztien gainetik kokatzen da).

Ideologikoko prozesu horri pentsalari batzuk laguntzen dute, (**Madino**; absolutismoaren defendatzailea, botere bat nagusituko dena guztien gainetik bakea gauzatzeko. Super-omnia (guztiaren gainetik; subiranoa) kontzeptuaren aita, pentsalari Frantzesar.) (**Hobbes**; XVII mendeko pentsalaria. Botere bat nahi zuen besteen gainetik gatazkak gelditzeko).

Westfaliako bakea (1648) Europako potentziak bildu ziren beraien arteko gatazkei amaiera emateko, une historiko hori hartzen da Europako Estatu sistemaren egonkortasunaren mugarri. Historian lehen aldiz potentziek independentzia eta subiranotasuna zuten. Estatu absolutua (Estatu liberal bihurtu iraultza liberal burgesa eman zelako) – Estatu liberala (XVII-XVIII mendeetan jaio) (Estatu sozial bihurtu, langile mugimendua eman zelako) – Estatu soziala (XX. Mendean jaio)

2.ESTATU MODERNOAREN ELEMENTU ERATZAILEAK

Estatua lurralde determinatu edo mugatu batean botere politiko baten menpe dagoen herri bat juridikoki antolatzean sortzen den ente soziala da. Hiru ezaugarri nagusi: botere **subiranoa**, lurraldea eta herria.

-Botere subiranoa: botere gorena da, guztien gainetik dago. Jatorrizko boterea da (originario). Subiranotasuna ez da arau batetik etortzen. Herri subiranotasuna bada, herritik jaiotzen da. Baldintza ezina. Eskumenen eskumen. Subiranoa ez dena ezin du eskuduntzak banatu. Ze ondorio dakar subirano izatea? Funtsean, hertsapen edo koakzio fisikoaren legitimoaren monopolioa izatea (indar legitimoaren monopolioa). Subiranotasuna bi ikuspegi: kanpora begira edo barrura begira. **Kanpora begira** (berdintasun subiranoa Estatuaren artean eta Estatu baten barne aferetan (gaietan) esku ez hartzeko printzipioa. **Barrura begira** (indarraren monopolioa)

-Lurraldea: subiranotasuna ematen den territorio edo lur eremua eta ordenamendu juridikoaren estatalaren balioaren lur eremua/territorioa (lurra, airea, ura)

-Herria: Estatu batean bizi diren pertsonen komunitatea.

3.ESTATU ERAK ETA GOBERNU ERAK

- **Estatu erak (formas de Estado)**

Botere subirano, lurraldea eta herria antolatzeko moduarekin zerikusia du.

- **Estatu unitarioa.** Lurraldea, herria eta boterea homogeneousak sinpleak eta uniformeak diren Estatu motak. Estatu unitarioetan boterea zentro bakarra du, boterea zentro berberetik jaiotzen da. Adibidez, Frantzia. Ordenamendu juridiko uniformea.
- **Estatu konplexuak.** Botere zentro bakarra ez dutenak eta ordenamendu juridiko dibertsifikatua dutenak. Bi eredu desberdin dira federala eta konfederala. **Federala**, Estatu bat, "subestatues" osatua, ez dago botere politiko zentro bakarra, subiranotasuna ez dago "subestatueta" baizik eta horien gainean eraikitzen den egitura federalean; adibidez, Alemania. **Konfederala**, Estatu "subestatuez" osatua, ez dago botere zentro bakarra, subiranotasuna ez dago egitura estatallean, "subestatu" bakoitzak du. Praktikan Estatu independenteen batura da, koordinazio eta kooperazio printzipiotan oinarrituz elkarketa osatzea erabakitzen dutenak; adibidez, Suitza, praktikan ez da.
- **Erregionala.** Eredu politiko dibertsifikatu eta Estatu unitario eta Estatu konplexuen artean dagoela esan dezakegu, nola, bi motatako estatuetaatik hartzen ditu ezaugarriak. Espainia, adibidez.

- **Gobernu erak (formas de gobierno)**

Estatuaren botere edo aginte politikoaren antolaketa zehatzari egiten dio erreferentzia. Honek Estatuak dituen 3 botereen arteko antolakuntzarekin du zerikusia / harremana. (Exekutiboa, legegilea, betearazlea)

- **Sistema presidentzialista.** (Lehendakari sistema). Ematen da banaketa zorrotza botere legegilea eta exekutiboaren artean. Eredu honetan Estatuko presidentek dauka botere exekutiboa, botereen arteko bilaketa garbia bilatzen da eta presidentek (botere exekutiboa daukala) ez du erantzukizun politikorik parlamentuaren aurrean (parlamentuak botere legegilea). Presidentek ez du parlamentuak hautatzen eta parlamentuak ez ditu tresnak botere exekutiboa kontrolatzeko. AEB eta Venezuela adibidez.
- **Sistema parlamentarioa.** Gobernuak parlamentuaren konfiantza politikoa behar du, normalean herriak soilik parlamentua hautatzen du eta parlamentu hori da gobernu zehazteko zeregina duena. Parlamentua da gobernu burua hautatzen duena. Gobernu parlamentuaren konfiantza, konfiantza hori agertzeko hainbat tresna politiko daude: inbestidura saioak, konfiantza ta zentsura mozioak... botere exekutiboa gobernuari dagokio ez Estatu buruari, Gobernuarengandik bereizita dago Estatu buruaren figura. Estatu buruzagitzan sistema ezberdinak; monarkia eta errepublika sistema honekin normalean gobernu eta parlamentuaren arteko harreman dialektikoa ematen da. Espainia, adibidez.
- **Sistema semi-presidentzialista.** Aurreko bi ereduen arteko nahasketa (sistema presidentzialista eta sistema parlamentarioaren arteko nahasketa). Botere exekutiboa ez dago erakunde bakar baten esku; estatu buruaren eta gobernuaren eskuetan dago. Frantzia, adibidez.